

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko dituzun testuei lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu prozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela zure euskara plazara ateratzea!

JALGI HADI PLAZARA!

Sarea erabilia:

- ✓ Gasteizekin zerikusia duten emakume askoren biografiak dituzu aukeran [liburu honetan](#). Helbide horretan, Emakumeak Vitoria-Gasteizen mendeetan zehar liburua deskarga dezakezu, eta irakurri. Biografia asko daude, baina, ikaskideen artean banatuta, bana irakurri eta elkarri kontatuta, emakume interesgarri askoren berri jasotzeko aukera izango duzue. Animatu eta egin!
- ✓ Gasteizko IKArenean blogean, zuek egindako lanaren antzekoa egin zuen talde baten lana duzu, baina idatziz eginda: [Historiak ahaztutako emakumeak](#). Klikatu, irakurri eta komentatu zuen artean zer iruditu zaizuen. Gainera, beste talde batzuetako ikasleek egindako lan gehiago ere badaude blogean; ea zenbat topatzen dituzun!
- ✓ *Gaur8* aldizkariko [orrialde honetan](#) hainbat euskal emakumeren historiak ezagutzeko aukera izango duzu.
- ✓ Gasteizen, denboraldi batean, aukera egon da ibilbide gidatu berezi bat egiteko. Ibilbide horrek Gasteizko emakumeekin zuen zerikusia. [Artikulu honetan](#) duzue ibilbideari buruzko informazioa. Interesgarria izango litzateke informatzea ea momentu honetan ere ibilbide hori egiteko aukera dagoen, eta, hala izanez gero, animatu eta ibilbidea egitea. [Irratsaio honetan](#) ere informazio gehiago daukazu.
- ✓ Egun, Gasteizen, badaude emakume garrantzitsuen izena daramaten kaleak: Nieves Cano, Loreto de Arriola, Coronela Ibaibarriaga, Elvira Zulueta, Micaela Portilla, Maite Zuñiga... Ba al dakizu non dauden? Eta ba al dakizu nor izan ziren emakume horiek eta zergatik daramaten kale horiek izen hori? Bila ezazu informazioa, eta azal iezaiezu ikaskideei aurkitutakoa.
- ✓ Iruñean, ekimen interesgarri bat egin zuten gai honen harira. [Hemen duzu artikulu bat](#). Irakurri eta interesgarri iruditzen zaizuna komenta ezazu ikaskideekin.
- ✓ Sarean, gaiaren inguruko berri asko daude irakurgai. Guk batzuk aukeratu ditugu. Bana itzazue zuen artean, bakoitzak bat irakur dezala, eta hurrengo egunean, taldetxotan jarrita, elkarri azalduko diozue irakurritakoa. Hemen dituzue guk aukeratutako batzuk:

Irutxulo, [Emakumeen izenak dituzten kaleak jaso dituzte mapa batean](#).

Diario Vasco, [Estrainekoz emakume baten izena duen plaza du Azpeitiak](#).